

AVENTURAS GASTRONOMICAS I "CONDUCTAS INDECOROSAS EN LA MESA"

CONVOCATORIA

El próximo mes de octubre va a tener lugar la segunda edición de los "Encuentros de Gráfica OKUPGRAF 2001". Con estos encuentros pretendemos acercar el complejo y variado territorio del mundo gráfico a la sociedad, de tal modo que en este momento estamos trabajando en la organización de diversas iniciativas que, deseamos, dibujen un panorama lo más rico y amplio posible: exposiciones, cursos y talleres, seminarios, ediciones de obra, actividades de calle, potenciación de la creación gráfica, experiencias de carácter popular y divulgativo, aplicación de la gráfica a proyectos culturales...

En este contexto, y con el saludable propósito de sacudirnos algunas de las molestas solemnidades y prejuicios que muy frecuentemente se pegan a esa cosa llamada arte, queremos con esta convocatoria invitarte a un juego. Un juego abierto al mayor número de personas posible: guapos y feos, jubilados y mediopensionistas, terrícolas y lunáticos...

Como todo juego, este también tiene sus reglas (pocas). Que son:

OBRA

Queremos que nos enviéis una o más tiras de fotografías obtenidas en un fotomatón de la calle, en su soporte original, sin marcos ni cristal, y con el título, nombre del autor, dirección y teléfono escritos en su parte posterior.

TEMA

El tema al que, de alguna manera, deben obedecer las imágenes es: "CONDUCTAS INDECOROSAS EN LA MESA". Primera parte de un tema genérico que esperamos desarrollar en próximos años con el título: "AVENTURAS GASTRONOMICAS".

ENVIOS

Las obras deberán ser remitidas antes del 10 de octubre, indicando en el sobre "Okupgraf - Aventuras gastronómicas" Ayuntamiento de Pasaia -Kultur saila, Euskadi etorbidea, 61-20110 Pasaia, (Gipuzkoa), a la atención de Bea Caballero. Si algún participante quisiera que su obra le fuera devuelta debe indicárnoslo por escrito al envío de la misma.

EXPOSICION

Todas las tiras recibidas se expondrán en Pasaia Udal Aretoa, siendo la inauguración el día 26 de octubre a las 20:00h.

NOTA

En la sala de exposiciones y mientras dure la misma, se dispondrá de un fotomatón para el uso de los visitantes que podrán colocar sus fotografías en una superficie dispuesta para ello.

Okupgraf agradece a la casa Tecnotrón la cesión de los medios técnicos que hacen posible esta exposición.

LEGALIDADES

Por el hecho de concurrir a la convocatoria todos los participantes aceptan íntegramente estas bases.

PARA QUE
NO OS QUEJEIS,
PARA ABRIR
PUERTAS
A LA IMAGINACION
Y AL OBJETO,
DE PASO,
DE MEJORAR
VUESTROS
MODALES,
OS ADJUNTAMOS
UN FRAGMENTO
DEL
"CODEX ROMANOFF
DE
LEONARDO
DA VINCI".

DE LAS CONDUCTAS INDECOROSAS EN LA MESA DE MI SEÑOR

Estos son los hábitos indecorosos que un invitado a la mesa de mi señor no debe cultivar (y baso esta relación en mis observaciones de aquellos que frecuentaron la mesa de mi señor durante el pasado año):

Ningún invitado ha de sentarse sobre la mesa ni de espaldas a la mesa, ni sobre el regazo de cualquier otro invitado.

Tampoco ha de poner la pierna sobre la mesa.

Tampoco ha de sentarse bajo la mesa en ningún momento.

No debe poner la cabeza sobre el plato para comer.

No ha de tomar comida del plato de su vecino de mesa a menos que antes haya pedido su consentimiento.

No ha de poner trozos de su propia comida de aspecto desagradable o a medio masticar sobre el plato de sus vecinos sin antes preguntárselo.

No ha de enjugar su cuchillo en las vestiduras de su vecino de mesa.

Ni utilizar su cuchillo para hacer dibujos sobre la mesa.

TECNOTRON

ARTELEKU

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura, Etxeko, Gaitasun eta Koroil Departamentua
Departamento de Cultura, Etxeko, Jantzería y Deportes

PASAIKO UDALA

OKUP
GRAF
EUSKO INDIARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

No ha de limpiar su armadura en la mesa.

No ha de tomar la comida de la mesa y ponerla en su bolso o faltriquera para comerla más tarde.

No ha de morder la fruta de la fuente de frutas y después retornar la fruta mordida a esa misma fuente.

No ha de escupir frente a él.

Ni tampoco de lado

No ha de pellizcar ni golpear a su vecino de mesa.

No ha de poner los ojos en blanco ni poner caras horribles.

No ha de poner el dedo en la nariz o en la oreja mientras está conversando.

No ha de hacer figuras modeladas, ni prender fuegos, ni adiestrarse en hacer nudos en la mesa (a menos que mi señor así se lo pida).

No ha de dejar sueltas sus aves en la mesa.

Ni tampoco serpientes ni escarabajos.

No ha de tocar el laúd o cualquier otro instrumento que pueda ir en perjuicio de su vecino de mesa (a menos que mi señor así lo requiera).

No ha de cantar ni hacer discursos, ni vociferar improperios ni tampoco proponer acertijos obscenos si está sentado junto a una dama.

No ha de conspirar en la mesa (a menos que lo haga con mi señor).

No ha de hacer insinuaciones impúdicas a los pajes de mi señor ni juguetear con sus cuerpos.

Tampoco ha de prender fuego a su compañero mientras permanezca en la mesa.

No ha de golpear a los sirvientes (a menos que sea en defensa propia)

Y si ha de vomitar, entonces debe abandonar la mesa.

**GASTRONOMI ABENTURAK (I):
"MAHAIKO PORTAERA ITSUSIAK"**

DEIALDIA

Aurtengo urrian "OKUPGRAF" Grafika Topaketan bigarren edizioa egingo dugu. Mundu grafikoaren lurralde nahaspilatsu eta aberatsa gizarteari erakustea, horra hor gure helburua. Bide hori hartuta, une honetan hainbat ekimen antolatzen ari gara, ahalik eta testuinguru aberats eta zabalena eskaintzeko: erakusketak, ikastaroak, tailerrak, jardunaldiak, obra edizioak, kale ekintzak, sorkuntza grafikoa, ikuspegi askotako eta herrikoiko esperientziak, teknika grafikoaren eta proiektu kulturalen arteko uztarketa.

Testuinguru horretan, eta artea omen den horri maiz askotan itsastan zaizkion handikeria eta aurreiritzi higuigarriak uxatzeko asmo osasungarriaz blai eginda, jolas egitera gonbidatzen zaitugu deialdi honen bidez. Jolas irekia, itsusi eta ederrek, jubilatuta eta aurre-pentsioaren hartzaileek, lurtar eta ilargitarrek egiteko modukoa.

Jolas guztiek bezala honek ere baditu bere arauak (bakar batzuk). Hauek dira:

OBRA

Kaleko argazki kabinetan argazki tira bat edo gehiago atera, eta jatorrizko euskarria aldatu gabe, hau da, kristalik eta markorik jarri gabe, eta atzealdean izenburua eta egilearen izen, helbide eta telefono zenbakia idatzi ondoren, guri bidali.

GAIA

"MAHAIKO PORTAERA ITSUSIAK", ideia orokor hori buruan edukita jorratu behar da gaia. "GASTRONOMI ABENTURAK" izenarekin datozen urteetan jorratzea espero dugun gai generiko baten lehen osagaia duzu aurtengo hau.

BIDALKETA

Ahaztu gabe! Urriaren 15a baino lehenago bidali behar dituzue zuen obrak. Kartazalean zera jarri: "Okupgraf" – Gastronomi abenturak" Pasaiaiko Udala – Kultur Saila, Euskal etorbidea, 61 – 20110 Pasaia (Gipuzkoa), eta Bea Caballeroren izenean bidali. Obra berreskuratzea nahi izanez gero, bidalketa egitean idatziz adierazi.

ERAKUSKETA

Jasotako obra guztiak Pasaiaiko Udala Aretoan erakutsiko dira. Irekitze eguna: urriak 26 dituela gaueko 20:00etan.

OHARRA

Erakusketa egunetan kaleko argazki kabina horietako bat jarriko da aretoan. Bisitariak aukera izango dute argazkiak atera eta leku prestatu batean jartzeko. Har beza gure eskerrona Tecnotron enpresak, erakusketa egin ahal izateko bitarteko teknikoak eskura jarri dizkigulako.

LEGE KONTUAK

Aski da deialdian parte hartzea oinarriak oso-osorik onartu direla ulertzeko.

LOSENTXARI
GABILTZALAKO,
IRUDIMEN AHULDUAK
BIZTEKO ETA,
BIDEZ BATEZ,
ZUEN MANERAK
TXUKUNTZEN LAGUNTZEKO,
HONA HEMEN
LEONARDO
DA VINCIREN
"CODEX ROMANOFF"
OBRAREN
ZATI BAT.

PORTAERA ITSUSIAK
NIRE
JAUNAREN
MAHAIAN

*Hona hemen, irakurle, nire jaunaren mahai lagunek
uxatu behar dituzten ohitura itsusiak
(zerrenda hau iazko urtean egin nuen, sarritan nire jaunaren
mahai lagunak ginenon portaerak aztertu ondoren)*

*Gonbidatu hori, ez zaitetz eseri ez mahai gaienean ez mahaiari
bizkarra emanez, ezta ere beste gonbidatuen magalean.*

Ez ezazu hankarik mahai gainean jarri.

Ezta ere inoiz mahai azpian eseri.

Jateko ez ezazu burua platerean sartu.

*Ez ezazu aldameneko mahai lagunaren platerean jan, non eta
haren oniritzia ez duzun.*

*Ez itzazu itxura nardagarriko edo erdi mastekatutako zure
janari zatiak mahai lagunaren platerean utzi, non eta
baimenik eskatu ez diozun*

*Ez ezazu zure labana aldameneko mahai lagunaren
jantzieta garbitu.*

Ezta ere zure labana mahaian marrazkiak egiteko erabili.



ARTELEKU

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura, Euskara, Gaztania eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Euskara, Juventud y Deportes

PASAIKO UDALA
UDALA
GIPUZKOA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

Ez ezazu zure armadura mahaian garbitu.

*Ez ezazu mahaiko janaria jaso eta beste noizbait
jateko poltsan edo patriketan gorde.*

*Ez ezazu fruta ontziko fruta marruskatu eta
marruskatutakoa fruta ontzi berean utzi.*

Ez ezazu tu egin jaunaren aurrean.

Ezta ere haren aldamenean.

*Ez ezazu zure mahai laguna atximurrez eta zaplatekoz
ubelduta utzi.*

Ez itzazu begiak okertu, ezta ere imintzio itsusiak egin

*Ez itzazu sudur eta belarri zuloak behatzekin haztakatu,
mahai lagunarekin solasean ari zaren bitartean.*

*Ez ezazu ogi mamiarekin irudirik egin, ezta ere surik
piztu edo korapiloak egiten trebatzeko mahaia erabili
(non eta nire jaunak eskatzen ez dizun).*

Ez itzazu etxeko hegaztirik mahai gainean aske utzi.

Ezta ere suge eta labezomorroak.

*Ez ezazu txistua edo beste musika tresnaren bat jo
aldameneko mahai lagunari kalte egiten badio (non eta
nire jaunak eskatzen ez dizun).*

*Ez ezazu ez abestu ez hitzaldirik egin, ezta ere irainik
ahoz gora bota, eta ezta ere asmakizun lizunik proposatu,
zure aldamenean damaren bat baldin badaukazu.*

*Ez zaitetz mahaian azpijokotan hasi (non eta nire jauna
hasten ez den).*

*Ez iezaezu iradokizun zantarririk egin nire jaunaren
mutilei eta ez zaitetz haien gorputzekin olgetan ibili.*

*Ezta ere mahai lagunari su eman, mahaian dagoen
bitartean.*

*Ez itzazu zerbitzariak jipoitu (zure burua
babesteko ez bada).*

*Eta botaka egin behar baldin baduzu, hobe mahaia
uztea.*